



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 25ean

8 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- % 65 baino gutxiagoko ezgaitasuna duten pertsonak Lan eta Eguneko Zentroetako programetan sartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Land Rover Discovery ibilgailu bat erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Aragón eta Ebro ibaietako ibilguetan aurreikusitako jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Leitzarango autobiiaren ondoriozko kalte-ordainen pagamenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Leitzarango autobiiako obrak zirela-eta Gorritin egin gabe utzi ziren hainbat jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko Plana” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- “Nafarroako Ondasun Bibliografikoa antolatu eta zaintzeko laguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- “Liburutegi sarerako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak erostea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- “Liburutegirako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak erostea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Merkataritzako azalera handiak ezartzeko espedienteen biderapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Nafarroako II Erakustazokari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- % 33tik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna duten pertsonen buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Radioterapia tratamenduaren etetei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

- NOZeko langile fakultatiboen lanbide karrera aplikatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Anbulategietako Kanpoko Kontsultetan aldi baterako lan egiteko lan-kontratuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Ikastetxeetan egiten diren errehabilitazio saioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Ikastetxe ez-unibertsitarioko ikasleen eskubide eta betebeharren araudia aldatzeko aukerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko lanbide elkargoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Bularreko minbiziari aurre hartzeko programako autobusari buruzko galdera, San Adrianen matxuraturik baitago. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapen-proposamena (32. or.).

F saila:
GALDERAK

% 65 baino gutxiagoko ezgaitasuna duten pertsonak Lan eta Eguneko Zentroetako programetan sartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak % 65 baino gutxiagoko ezgaitasuna duten pertsonak Lan eta Eguneko Zentroetako programetan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ezgaitasuna duten pertsonen buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondo-koek ezarritakoari jarraikiz.

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak legedia aldatzeko asmorik behin eta berriro iragarritako helburua, hots, % 65etik beherako ezgaitasuna dutenek oinarrizko errenta jasotzea, lortzearen?

Nafarroako Gobernuak Oinarrizko Errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuaren xedapen gehigarriaren helburua betetzen du: foru dekretu horretan xedatutako araubidera bildu ditu % 65tik beherako ezgaitasuna duten eta Gizarte Ongizate Institutuak ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzako aldizkako dirulaguntzak, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduari jarraikiz.

% 65etik beherako ezgaitasuna duen pertsonaren bat duten familia unitateentzako Oinarrizko Errenta, beren oinarrizko beharretarako errekurtsio

ekonomikorik ez duten gainerako familia nafarrei ematen zaienaren berdina da (120/1999 FD).

Laguntza hori arautzen duten foru dekretua eta foru agindua duela gutxi argitaratu direnez, neurriaren norainokoa eta neurri zuzentzaileen aplikazioa ebaluatzeke daude.

2.- Pertsona batzuek ezin dituzte bete eskolatzeko arautuari eta Lan zein Eguneko Zentroetako doitzeko programetan sartzeari buruzko baldintzak. Nola bermatuko du Gobernuak horiek kotizaziopeko pentsioaren pareko errenta jaso dezaten?

% 65tik beherako ezgaitasuna duten pertsonentzako aldizkako dirulaguntzen onura, ezgaitasuna duten pertsonen jarraitutako programaren baldintzei dagokienez, aurretik interesatuak, eskabidearekin batera, doitzeko pertsonal eta sozialaren programa egiten ari den lan zentro zein eguneko zentroetako egiaztagiria (asistentzia, bertan egongo den aurreikusitako denbora eta jasotzen duen hoberia zehaztuta) aurkezten duenean emanen da. Horrelakorik ez badu, lanbide hezkuntza edota bizitza heldura igarotzeko programa egiten ari den zentroko egiaztagiria (asistentzia eta hezkuntza programa horretan egongo den aurreikusitako denbora zehaztuta) aurkeztu beharko du.

3.- Zenbat pertsona dago Nafarroan % 33 eta % 65 bitarteko minusbaliotasuna izaki Lan eta Eguneko Zentroetan sartzeko zain?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuko informazioaren arabera, hauek dira itxaron-zerrendan dauden pertsonak:

Entitatea	Pertsona kopurua
Elkarkide	23

Beste zentroetarako ez dago itxaron-zerrendarik.

4.- Beste autonomia erkidego batzuek ezgaitasunak eta urritasunak jotakoen zentsoa dute. Noiz izanen dugu halakorik Nafarroan?

Jadanik burutu da pertsona minusbaliatuen zentsoa informatizatzeko programa. Datuak esku-ragai daude, behin baino gehiagotan komunikabi-deetan jakinarazi den bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri: Calixto Ayesa Dianda

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Land Rover Discovery ibilgailu bat erabiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Land Rover Discovery ibilgailu bat erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 8ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Land Rover Discovery ibilgailu bat erabiltzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Land Rover Discovery ibilgailua –NA-5112-AP– LIFE programarako eta bereziki hartza eta ugatza zaintzeko erabiltzeari buruz, argitu egin behar da ibilgailu hori ez zela LIFE programako fondoekin bakarrik erosi, ez eta “Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeak aipatutako bi espezie horien jarraipena egiteko soilik ere. Ondotik, urtarrila erta irailaren 30a bitarte egindako irteerak, datak eta lanak zehazten dira:

1999-01-18 Erronkari ibarra. Zaindari nagusiarekin eta kazetari batekin, hartza dela-eta.

1999-01-20 Baztan Bertiz. Baso-igel gorriaren jarraipena.

1999-01-27 Zarrakastelu-Caparroso. Ikuskapena, txakurrek ardiei egindako eraso dela-eta.

1999-02-02 Ezkaroze. Bilera, hartzaren afererako errondakoekin.

1999-02-10 Tutera. Bilera Bardeetako lehendakariarekin.

1999-02-16 Allo Miranda-Arga. Eper-zentsoa.

1999-02-17 Iruña-Ainsa (Huesca). Bilera teknikoa, ugatzaren afera koordinatzeko.

1999-02-18 Ainsa. Bilera teknikoa, ugatzaren afera koordinatzeko.

1999-02-24 Ultzama-Anue. Baso-igel gorriaren jarraipena.

1999-03-15 Lizarra. Bilera zaindari nagusiarekin, ugatza dela-eta.

1999-03-17 Ultzama ibarra. Baso-igel gorriaren jarraipena.

1999-03-22 Lerín-Sarda. Ikuskapena, txakurrek ardiei egindako eraso dela-eta.

1999-03-24 Asolaze kanpina. Hartzari buruzko bilera teknikoa.

1999-03-27 Altsasu. Ikuskapena, Altzania ibaira eginiko isurketa dela-eta.

1999-03-30 Bertiz. Orein populazioen kontrola.

1999-04-06 Erronkari ibarra. Hartzaren jarraipena

1999-04-07 Erronkari ibarra. Tranpa-tokien ikuskapena.

1999-04-08 Zaragoza. Ebroko Ur Konfederazioa.

- 1999-04-15 Lerín. Eper-zentsoa.
- 1999-04-16 Tuter. Langileen aferak.
- 1999-04-20 Lizarra. Lursailtako aferak.
- 1999-04-22 Erronkari ibarra. Zamorako teknika-rien bisita prestatzea.
- 1999-05-03 Erronkari ibarra. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-04 Erronkari ibarra. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-05 Irati-Arbaiungo arroila. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-10 Bertiz. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-11 Erronkari ibarra. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-11 Irati-Arbaiungo arroila. Zamorako ingurugiroko teknikariek bisita.
- 1999-05-19 Erronkari ibarra. Hartzaren afera eta sarrio-zentsoa prestatzea.
- 1999-05-31 Arakil ibaia. Ikuskapena, isurketa dela-eta.
- 1999-06-04 Bidasoa ibaia. Ubidea ikuskatzea.
- 1999-06-09 Villafacila (Zamora). Estepako hegaztiei buruzko jardunaldiak.
- 1999-06-10 Villafacila (Zamora). Estepako hegaztiei buruzko jardunaldiak.
- 1999-06-11 Villafacila (Zamora). Estepako hegaztiei buruzko jardunaldiak.
- 1999-06-24 Lizarra. Bilera Arrantzaleen Elkarte-ko lehendakariarekin.
- 1999-06-28 Erronkari ibarra. Sarrio-zentsoa.
- 1999-06-29 Erronkari ibarra. Sarrio-zentsoa.
- 1999-06-30 Erronkari ibarra. Sarrio-zentsoa.
- 1999-08-03 Lizarra-Viana. Zaindari nagusiarekin, babesguneak direla-eta.
- 1999-08-04 Tuter. Ikuskapena, nekazaritzako kalteak direla-eta.
- 1999-08-09 Lizarra. Zaindari nagusiarekin, karramarroen aferarengatik.
- 1999-08-11 Tafalla. Zaindari nagusiarekin, karramarroen aferarengatik.
- 1999-08-17 Sabaiza-Moriones. Ikuskapena, basurdeak eragindako kalteak direla-eta.
- 1999-08-19 Iraitzoz-Lantz. Granja eta industria ikuskatzea.
- 1999-08-24 Bertiz. Orein populazioaren jarraipena.
- 1999-08-25 Arga ibaia. Ikuskapena.
- 1999-08-26 Sabaiza-Irunberri. Ikuskapena, basurdeak eragindako kalteak direla-eta.
- 1999-08-29 Arga ibaia. Ikuskapena, isurketa dela-eta.
- 1999-09-02 Andosilla. Ikuskapena, Arga ibaira egindako isurketa dela-eta.
- 1999-09-06 Itoitz. Laneko bisita obra-ingeniariarekin.
- 1999-09-12 Arga ibaia-Erregerena mendia. Ikuskapena, salaketa faltua dela-eta.
- 1999-09-14 Erronkari ibarra. Zaindari nagusiarekin hartza dela-eta.
- 1999-09-15 Mediano ibaia. Ikuskapena, herrilak.
- 1999-09-21 Erronkari ibarra. Hartzaren afera.
- 1999-09-26 Arga eta Ega ibaiak. Ikuskapena, isurketak direla-eta.
- 1999-09-28 Sabaiza-Moriones. Ikuskapena, kalteak direla-eta.
- Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.
- Iruñean, 1999ko urriaren 27an
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Aragón eta Ebro ibaietako ibilguetan aurreikusitako jarduketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak Aragón eta Ebro ibaietako ibilguetan aurreikusitako jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du “Aragón eta Ebro ibaietako ibilguetan aurreikusitako jarduketari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Aragón eta Ebro ibaietako ibilgu eta ibai ertzetan jarduketak egiteko 600 milioiko inbertsioa egiteko aurreikuspenari dagokionez:

1. Zer aurrekonturi egotziko zaizkio 600 milioi horiek?

1999 eta 2000. urteetako aurrekontuei.

2. Zer proiektu egin da zehatz-mehatz? Zein da horiek egiteko aurrekontua?

Galdera honen erantzuna erantsi den taulan zehazten da.

3. Zertan da proiektu horien tramitazioa?

Proiektuak erabat bukatuta daude eta Ebroko Ur Konfederazioak proposatutako aldaketa teknikoren baten zain, bi administrazioek aurtengo urriaren 21ean Zaragozan konfederazioak dituen bulegoetan egindako bileraren arabera.

4. Non kokatzen dira jarduketa horiek, proiektua izan ala ez? Erantsi bedi horiek kokatzeko kartografia eskala egoki batean.

Egitea aurreikusita dauden jarduketek, proiektua izan ala ez, ondoko udalerrri hauek ukitzen dituzte:

Ebro ibaia:

Castejón
Valtierra

Arguedas
Fontellas

Aragón ibaia:

Caparroso
Martzilla
Villafranca
Milagro

Jarduketak kokatzeko plano orokorra erantsi da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

EBRO ETA ARAGÓN IBAIETAKO IBILGU ETA IBAIERTZETAKO JARDUKETA PROIEKTUEN AURREKONTUAREN BALIOESPENA

Ebro ibaiko ibilgu eta ibaiertzetako jarduketa proiektua

Sotobajon, Valtieran, defentsak jartzea	178.583.967 Pts
Sotobajon, Arguedasen, defentsak jartzea	24.340.780 Pts
Soto Ramalete-n legarrak kentzea	28.787.973 Pts
Soto Aislado-n legarrak kentzea	27.699.324 Pts
Castejonen legarrak kentzea	16.573.709 Pts
Fontellasen, motan defentsak jartzea	40.524.030 Pts
Soto El Aisladon defentsak jartzea	16.599.448 Pts

Aragon ibaiko ibilgu eta ibaiertzetako jarduketa proiektua

Segurtasun eta Osasun Azterketa	7.374.980 Pts
Milagroko zubian erreka legarrak dragatzea	5.089.918 Pts
Villafrancan, dragatzea mendiaren erorketarik	54.499.627 Pts
Caparroson, motan defentsak jartzea	32.860.555 Pts
Caparroson erreka legarrak dragatzea	7.696.635 Pts
Caparrosoko zubian erreka legarrak dragatzea	23.755.475 Pts
Marcillan, motan defentsak jartzea	13.073.372 Pts
Marcillan, motan defentsak jartzea	71.596.493 Pts
Caparroson, Lobera eta Sotilloko natur erreserban kanpoko mota egitea	51.062.388 Pts
Milagron, erreka legarrak dragatzea	3.709.881 Pts

Leitzarango autobiarene ondoriozko kalte-ordainen pagamenduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Leitzarango autobiarene ondoriozko kalte-ordainen pagamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gorritiko hermendian Leitzarango autobia-ko obrek sortutako kalteei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunaren idazkian, “galdera” idazpurupean, bost ageri badira ere, lehenengo hirurak ez dira galderak, baieztapenak baizik; beraz, ezin zaie erantzunik eman.

4.-Zergatik ez da ordaindu zenbateko hori?

Departamentu honetan ez da sartu horri buruz Mendi Zerbitzuak eginiko tasaziorik; beraz, ezin izan da inolako administrazio espedienterik abiarazi.

5.-Aurreikusi al du departamentuak zenbateko hori, iragan denborak sortutako berandutze-korritu eta guzti, ordaintzea?

Baldin eta ofizialki txostenik jasotzen bada, beharrezko frogak egin ondoren eta bidezkoa bada, dagokion ordainketa egingen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Leitzarango autobia-ko obrak zirela-eta Gorritin egin gabe utzi ziren hainbat jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Leitzarango autobia-ko obrak zirela-eta Gorritin egin gabe utzi ziren hainbat jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Leitzarango autobia-ko obrak zirela-eta Gorritin egin gabe utzi ziren hainbat jarduketei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunaren idazkian, “galdera” idazpurupean, lau ageri badira ere, lehenengo hiruak –“Leitzarango autobia-ko obrak orain dela zenbait urte bukatu ziren”, “Obrak bukatutakoan, egin gabe utzi ziren hainbat herritan departamentuak

hitzartutako jarduketak” eta “Gorritin egin gabe utzi ziren hainbat jarduketa, hala nola bideetakoak, zabortegia konpontzeari buruzkoak eta saneamendukoak, autobiako euri-uren sareari eragiten diotenak”– ez dira galderak, baieztapenak baizik; beraz, ezin zaie erantzunik eman.

4.- Noizko aurrekusi du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak herri horretan jardutea arestiko puntuan adierazitako afekzioak konpontzearen?

Gorritin egiteke dauden obra osagarriak garrantzi txikikoak dira. Gorritiko Udalaren ordezkariekin hantxe bertan egiaztatu dira eta kontratazioa eta obrak epe laburrean egingen dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio: José Ignacio Palacios Zuasti

“Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko Plana” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko Plana” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Talde-

ko Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko Plana” izeneko 15480-2 aurrekontu lerroari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko Plana” izeneko 15480-2 kontusailaren betetze egoerari dagokionez, kontusailaren hasierako kopurua 13.000.000 pezetakoa zen, eta beharrezko aurrekontuaren doikuntzak egin ondoren, finkatutako kopurua 12.500.000 pezetakoa da. Aurrekontua (% 60, 14).

Hona zehatz-mehatz orainarte egindako gastuak, 6 kontzeptutan banaturik:

Kontzeptua	Azalpena	Betetakoa	Ordaintzeke
Materiala	Material didaktikoa: gastuak laguntza liburuetan, aldizkari profesionalen harpidetzak, irakaskuntzako jarduera osagarriak,....	1.391.787	
Funtzionamendu eta mantentze materiala	Funtzionamendu eta mantentze materiala: makinak mantentzea, material suntsigarria, fotokopiak, erabilera didaktikoko tresnak erosi eta konpontzea, lokalak konpontzea, altzariak, etab.	1.597.646	
Ikastaro bereziak	Ikastaro bereziak: urteko plana osatzeko enpresei ikastaro zehatzak kontratatzea (ikastaro trinko eta teknikoak).	2.231.600	
Euskaltegiko irakasleen prestakuntza	Euskaltegiko irakasleen prestakuntza: irakasleen prestakuntzaren gastuak, zentro berean emandako ikastaroak eta beste entitate batzuetan (Udako Unibertsitatea, ...) prestakuntza jardueretan parte hartzea.	303.548	
Propaganda	Propaganda: publizitate eta informazio gastuak (foiletoak, prentsa, egutegiak,...)	882.263	
Beste euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak	Nafarroako Gobernutik kanpo zentroetan euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak: konpentsazio ekonomikoak arrazoi bereziak direla-eta (Iruñeritik kanpo bizitzea, ordutegiaren bateraezintasuna, ...)	882.263	
	GUZTIRA	7.517.244	4.982.756

2. Foru Komunitateko administrazioan euskara sustatzeko Planaren helburuak, 135/1999 Foru Dekretuan, batez ere 1. 2. artikuluan, zehaztuta-koak dira.

Burutu eta proposatutako ekintzak zuzendaritza nagusi honetako Euskarazko Prestakuntza Zentroaren lanerako Urteko Planean ezarritakoak dira. Hona hemen ekintza horiek (arrazoi praktikoa-ak direla-eta 1998/1999 ikasturteari erreferentzia egiten diotenak agertzen dira):

Euskara ikastaroak Nafarroako Administrazio

Publikoko langileentzat

1998-1999 ikasturtea

Udako ikastaroak 98

– Ikastaro trinkoak, 6 ordu egunean. Maila guztiak.

- Abuztua: 3tik 28ra
- Iraila: 2tik 29ra

Ordutegia: 8etatik 14:30etara.

Ikastaro estentsiboak (98-99)

– Egunean 2 orduko ikastaroak, astelehenetik ostiralera, urritik otsailera eta otsailetik ekainera.

- 1. estentsiboa: urriaren 15etik otsailaren 12ra
- 2. estentsiboa: otsailaren 22tik ekainaren 10era

Ordutegiak: 7etatik 9etara, 14etatik 16etara eta 16etatik 18etara.

Ikastaro trinkoak (98-99)

– Egunean 6 orduko ikastaro trinkoak.

EGUNAK	MAILAK			
98/10/19-98/11/13	1	6	7	8
98/11/16-98/12/18	2	7	8	9
99/1/25-99/2/19	3	8	9	10
99/2/22-99/3/22	4	9	10	11
99/4/12-99/5/7	5	10	11	EGA
99/5/10-99/6/4	6	11	EGA	ALFABET.

Euskara teknikoaren ikastaroak

1. "Administrazioko idazkiak euskaraz" (1998ko urriaren 20a-abenduaren 10a)

2. "Itzulpengintza" (1999ko urtarrilaren 12a-otsailaren 25a)

3. "Jendaurreko harrera euskaraz" (1999ko apirilaren 13a– maiatzaren 27a)

Ordutegia: 12etatik 15etara, astearte eta ostegunetan

1999-2000 ikasturtea

Udako ikastaroak 99

– Ikastaro trinkoak, 6 ordu egunean. Maila guztiak.

- Abuztua: 4tik 31ra
- Iraila: 1etik 28ra

Ordutegia: 8etatik 14:30etara.

Matrikula: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra.

Ikastaro estentsiboak

– Egunean 2 orduko ikastaroak, astelehenetik ostiralera, urritik otsailera eta otsailetik ekainera. Maila guztiak.

- 1. estentsiboa: urriaren 13tik otsailaren 11ra
- 2. estentsiboa: otsailaren 21etik ekainaren 7ra

Ordutegiak: 7etatik 9etara, 14etatik 16etara eta 16etatik 18etara.

Matrikula: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra.

Ikastaro trinkoak (98-99)

– Egunean 6 orduko ikastaro trinkoak.

Ordutegia: 8etatik 14:30etara.

EGUNAK	MAILAK				
Matrikula: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra					
199/10/18-99/11/15	1	1	6	7	8
99/11/18-99/12/22	1	2	7	8	9
Matrikula: abenduaren 13tik 17ra					
00/1/17-00/2/11	2	3	8	9	10

00/2/21-00/3/17	3	4	9	10	11
00/3/23-00/4/19	4	5	10	11	EGA
Matrikula: maiatzaren 2tik 5era					
00/5/15-00/6/9	5	6	11	EGA	Alfabet.

Euskara teknikoaren ikastaroak

IKASTAROA	EGUNAK	MATRIKULA
Administrazioko idazkiak	99/10/19-99/12/2	maiatzaren 31tik ekainaren 11ra
Iltzulpengintza	00/02/1-00/03/16	abenduaren 13tik 17ra
Jendaurreko harrera euskaraz	00/5/2-00/6/15	apirilaren 10etik 14ra

Ordutegia: 12etatik 15etara, astearte eta ostegunetan

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

“Nafarroako Ondasun Bibliografikoa antolatu eta zaintzeko laguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak “Nafarroako Ondasun Bibliografikoa antolatu eta zaintzeko laguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Nafarroako Ondasun Bibliografikoa antolatu eta zaintzeko laguntzak” izeneko 14850-0 aurrekontu lerroari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. 14850-0 kontusailaren betetze egoera, 1999ko urriaren 18an:

Hasierako kreditua	8.800.000 pezeta.
Baimendutako kreditua	8.799.100 pezeta.
Erabilitako kreditua	8.799.100 pezeta.
Aitortutako betebeharra	4.339.550 pezeta.

2. Emaniko laguntzak (apirilaren 16ko 105/1999 Foru Agindua):

– San Adriango Markeserriko Liburutegia: azpiegitura informatikoaren (Hardware) zati bat hornitzea, liburutegiko kudeaketarako LIBERMARC (tokiko sarea- 2 postu) programa erostea, XVI. mendetik XVII. mendera bitarteko 1000 libururen katalogatze automatizatua eta prestaketa. (2.152.350 pezeta.)

– Iruñeko Artzapezpikutza: XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko 540 libururen katalogatze automatizatua, LIBERMARC aplikazioaren lizenziaren urteko mantenimendua eta aplikazio

horren prestakuntza ikastaroa. (1.046.750 peze-
ta).

– Nafarroako Aita Kaputxinoen Probintzia: fondo zahar eta historikoko 1037 libururen katalogatze automatizatua. (2.800.000 pezeta).

– Orreagako Errege Etxea eta Kolegiata: fondo zahar eta historikoko 1037 libururen katalogatze automatizatua, katalogatzeko ekipoaren joan-eto-

rrien gastuak eta “Roncesvalles” liburua (1617) zaharberritzea. (2.800.000 pezeta).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta
ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a
Laguna Peña

“Liburutegi sarerako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak eroste- tea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak “Liburutegi sarerako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak eroste-
tea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Talde-
ko Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Liburutegi sarerako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak eroste-
tea” izeneko 14820-9 aurrekontu lerroari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. 14820-9 kontusailaren betetze egoera 1999ko urriaren 18an:

Hasierako kreditua	62.000.000 pezeta.
Behin betiko kreditua	61.300.000 pezeta.
Baimendutako kreditua	48.170.000 pezeta.
Baimentzeke dagoen kreditua	13.130.000 pezeta.
Aitortutako betebeharra	48.170.000 pezeta.

2. Erositako aleak, guztira: 25.893; 1.372 aldiz-
kako argitalpenak eta 24.521 liburu.

Hizkuntza: 1.846 euskarazko aleak dira eta
24.047 gaztelerazkoak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta
ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a
Laguna Peña

“Liburutegirako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak erostea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak “Liburutegirako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak erostea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Liburutegirako fondo editorialak eta ikusentzunezko fondoak erostea” izeneko 14810-1 aurrekontu lerroari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. 14810-1 aurrekontuaren betetze egoera 1999ko urriaren 18an:

Hasierako kreditua	19.000.000 pezeta.
Baimendutako kreditua	16.380.108 pezeta.
Erabilitako kreditua	14.380.108 pezeta.
Aitortutako betebeharra	14.380.108 pezeta.

2. Erositako aleak, guztira: 3.570

– Zer motatakoak diren: 16 ordenagailu-artxibo eta CD, 62 bideo, aldizkako argitalpenen 33 harpidetza, 3.379 gaur egungo liburu eta 80 liburu zahar.

– Zer hizkuntzatan dauden: 1999ko urriaren 19an katalogatutako dokumentuetatik, 1.079 euskarazko liburuak dira eta 73 euskarazko bideoak. Gainerako dokumentuak ondoko hizkuntzatan daude: gaztelera, frantsesa, ingelera, latina, italiarra, alemaniera, katalana eta galegoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Merkataritzako azalera handiak ezartzeko espedienteen biderapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak merkataritzako azalera handiak ezartzeko espedienteen biderapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 25eko 13 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeko Félix Puyo Rebollo foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Merkataritzako azalera handiak ezartzeko espedienteen biderapenari buruz. Hona Nuria Iturriagaitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun hiru dira departamentu honetan tramitatzen ari diren espedienteak. Hona hemen horietako bakoitzean egin dena:

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuri Iturriagaitia Ripoll

RIPAGAINA S.A., MERKATARITZA ZENTROA

Egunak	Erregistroa-Tramitazioa
1999-06-10	RIPAGAINA MERKATARITZA ZENTROAren espedientea Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean sartu zen; dokumentu zenbakia: 015-0027092-99.
1999-06-10	José Antonio Arenas Uria "Desarrollo Comercial Urbano de Ripagaina, S.A." enpresaren legezko ordezkariari jakinarazpena igorri eta epeak eta espedientearen tramitazioa zehaztu zitzaizkion. 1999-06-15ean jaso zuen.
1999-06-22	Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara Ofizialari espedientea igorri eta borondatezko txostena eskatu zitzaion.
1999-06-22	Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari Ripagaina Merkataritza Zentroaren espedientea igorri eta borondatezko txostena eskatu zitzaion.
1999-06-22	Santa María La Real Kontsumitzaile eta Etxekoandreen Elkarteari espedientea igorri eta borondatezko txostena eskatu zitzaion.
1999-06-28	"Desarrollo Comercial Urbano de Ripagaina, S.A." enpresaren sustatzaile José Antonio Arenas Uria jaunari gutuna bidali eta dokumentu gehiago eskatu zitzaizkion Ripagainako espedientearen osagarri gisa aurkezteko. 1999-06-30ean jaso zuen.
1999-06-28	Ripagainako proiektuaren arkitekto sustatzaile Juan Luis Irigaray jaunari gutuna bidali eta dokumentu gehiago eskatu zitzaizkion Ripagainako espedientearen osagarri gisa aurkezteko. 1999-06-30ean jaso zuen.
1999-07-02	Santa María La Real Kontsumitzaile eta Etxekoandreen Elkarteak erantzun eta Ripagainako Merkataritza Zentroari buruzko txostena igorri zuen.
1999-07-05	Jose Antonio Arenas Uria jaunak akatsak zuzentzeko idazkia bidali zuen.
1999-07-23	Merkataritza Ganbarari eta Iratxe eta Santa M ^a La Real Kontsumitzaileen Elkartei txosten osagarria, sustatzaileak 1999-07-13an bidalitakoa igorri zitzaion.
1999-07-27	Sustatzaileari fax bat bidali eta entseinen izen eta ezaugarriak eskatu zitzaizkion.
1999-07-28	Sustatzailearen erantzuna, merkataritza entseinen negoziaketei buruzkoa, espedientea Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegira bidali dadin eskatuz.
1999-07-29	Ripagainako Merkataritza Zentroaren espedientea Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegira bidali zen; 1999-07-30ean jaso zuen.
1999-08-04	Santa M ^a La Real Kontsumitzaileen eta Etxekoandreen Elkartearen erantzuna 1999-07-23ko eskaerari. Txostenean zehatz-mehatz dio ez dituela entseinen titularrak ezagutzen.
1999-08-13	Ripagainako legezko ordezkariari gutuna bidali eta espedientea Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiari bidali zitzaioa jakinarazi zitzaion.

* Nafarroako Gobernuak 54 egun natural ditu, Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiaren irizpena jasotzen duenetik aitzina, espedientea ebatzi eta sustatzaileari jakinarazteko.

EROSKI MERKATARITZA ZENTROA-TUTERA (HANDITZEA)

Egunak	Erregistroa-Tramitazioa
1999-06-28	TUTERAKO HIPER EROSKIren espedientea Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean sartu zen (dokumentu zenbakia: 011-0014932-99); hipermerkatua handitzeko txostena eskatzen zuen.
1999-07-06	Itziar Gallastegui Zabala "Eroski, Sociedad Cooperativa de Consumo Limitada" enpresaren legezko ordezkariak mezua jaso zuen. Bertan espedientearen tramitazioa eta epeak jakinarazi zitzaizkion.
1999-07-29	Sustatzaileari faxa bidali eta espedientea tramitatzeko Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiak eskatutako beharrezko dokumentuak igorri zitzaizkion.
1999-08-09	1999-07-29an eskatutako dokumentuak eman zituen.
1999-08-12	Iratxe eta Sta. M ^a La Real kontsumitzaileen elkarteetara eta baita Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofizialera ere espedientea bidali eta informazioa eskatu zitzaien.
1999-08-13	EROSKIko legezko ordezkariari gutuna bidali eta espedientea Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegira bidali zela jakinarazi zitzaion (departamentuak 1999-08-13an bidali zuen).
1999-08-16	Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiak 1999-08-13an bidalitako espedientea jaso zuen eta aginduzko txostena eskatu zen.
1999-08-16	"Sta. M ^a La Real" Etxekoandre eta Kontsumitzaileen Elkarteak bidalitako espedienteari buruzko txostena jaso zen.

** Nafarroako Gobernuak 52 egun natural ditu, Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiaren irizpena jasotzen duenetik aitzina, espedientea ebatzi eta sustatzaileari jakinarazteko.*

VIANAKO MERKATARITZA ZENTROA (NAFARROA)

Egunak	Erregistroa-Tramitazioa
1999-06-15	VIANAKO MERKATARITZA ZENTROaren espedientea Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean sartu zen; dokumentu zenbakia: 015-0027859-99. Espedientea sustatu du Gabriel Murias Murias jaunak, zeinak "MURIAS GRUPO EMPRESARIAL, S.L." enpresa ordezkatzeko baitu.
1999-06-23	Gabriel Murias Murias "MURIAS GRUPO EMPRESARIAL, S.L." enpresaren legezko ordezkariari gutuna bidali eta espedientearen tramitazioa eta epeak jakinarazi zitzaizkion.
1999-07-05	Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari, Santa María La Real Etxekoandreen Elkarteari eta Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofizialari espedientea bidali eta borondatezko txostenak eskatu zitzaizkien.
1999-07-08	Sustatzaileak espedientearen dokumentu gehiago eskatzen zituen gutuna jaso zuen.
1999-07-21	Santa M ^a La Real Etxekoandreen Elkarteak VIANAKO MERKATARITZA ZENTROari buruzko txostena bidali zuen.
1999-07-21	Sustatzaileari, fax bidez, merkataritza entseina edo marka bidal zezala eskatu zitzaion.
1999-07-22	Murias Grupo Empresarial, S.L. enpresak VIANAKO MERKATARITZA ZENTROari buruzko zenbait agiri departamentura bidali eta 1999-07-08an eskatutakoari erantzun zuen.
1999-07-26	VIANAKO MERKATARITZA ZENTROaren informazio osagarria bidali zen Iratxe Kontsumitzaileen Elkartera, Santa M ^a La Real Elkartera eta Merkataritza Ganbarara.
1999-07-27	Sustatzaileak eskatutako entseina PRYCA dela adierazten duen jakinarazpena egin eta salmentako azalera garbia 8.500 m ² direla adierazi zuen.
1999-07-30	Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiak VIANAKO MERKATARITZA ZENTROaren espedientea jaso zuen; 1999-07-29an bidali zitzaion.
1999-08-13	Vianako merkataritza zentroaren legezko ordezkariari gutuna bidali eta espedientea Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegira bidali zela jakinarazi zitzaion.

* Nafarroako Gobernuak 59 egun natural ditu, Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiaren irizpena jasotzen duenetik aitzina, espedientea ebatzi eta sustatzaileari jakinarazteko.

Nafarroako II Erakustazokari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak Nafarroako II Erakustazokari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 25eko 13 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du egin berri den Nafarroako Erakustazokari departamentu honek izan duen partehartzeari buruz. Hona Nuria Iturriagagoitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Turismo Zerbitzuak erakustazokari parte hartu zuen erakusleku baten bidez. Bertan, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuez gain, zenbait sektoretako elkarte eta partzuergo ere izan ziren.

Hona ekintza horren aurrekontua:

GASTUAK	
Erakuslekua diseinatu eta muntatzea	1.995.000 pezeta
Lekua alokatzea	876.758 pezeta
Publizitatea katalogoan	100.000 pezeta
Iragarkia irratian	38.000 pezeta
Konexio elektrikoa	36.779 pezeta

Erakuslekuan egon ziren langileak Turismo Zerbitzuaren plantillakoak ziren eta baita ere zerbitzu horrekin batera erakusketari izan ziren erakundeetako langileak. Horrela, azken horiek beren tokia izan zuten eskaintzak jendeari erakusteko (Pamplona Convention Bureau, Nafarroako Gobernuko Merkataritza Atala, Nafarroako Ostalaritza Enpresarioen Elkarte, Nafarroako Kanpinen

Elkatea, Nafarroako Mendialdea, Bideak-Asociación de Empresas de Actividades de Navarra).

Merkataritza eta Kontsumo Zerbitzuak ez du ezer babestu. Turismo Zerbitzuko erakuslekuan egon da (berak ordaindu du errenta) eta bertan mahai bat eman zigun Merkataritza Atalak egindako produktu adierazgarrienak erakusteko (Nafarroako artisautzaren katalogoa; EUROaren argitalpenak; Nafarroako Enpresaren Internazionalizazio Plana). Mahai horretan egon ziren, merkataritzari zegokion tokian, departamentuari atxikitako bi bekadun, beren lanorduetan. Halaber, arratsalderako laguntzaile bat kontratatu zen 60.000 pezeta; horrela, toki txiki hori behar bezala zainduta egon zen Erakustazokak iraun zuen egun guztietan.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

% 33tik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna duten pertsonen buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak % 33tik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna duten pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 25ko 13 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeko Félix Puyo Rebollo foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du % 33tik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna izateagatik dirusarrerarik jasotzen ez duten pertsonen buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz:

1. Zenbat pertsona daude Nafarroan halako ezgaitasuna izan eta batere laguntzarik jasotzen ez dutenak?

Minusbaliatuen zentsoaren bidez badakigu %33ko edo hortik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna duten pertsonen kopurua.

Dena den, ezinezkoa da jakitea horietako zenbatek ez duen inolako dirusarrerarik jasotzen. Honako egoerak gerta daitezke:

- Lanean diharduten pertsonak, egoera arautuan edo babestuan.
- Kotizaziopeko pentsioa jasotzen duten pertsonak.
- Langabezian dauden pertsonak, prestazio ekonomikoarekin edo prestazio ekonomikorik gabe.
- Lan munduan sartu ez diren pertsonak (etxe-koandreak).
- Zentro okupazional edota eguneko zentroetan aritzen diren pertsonak, lansariarekin edo lansaririk gabe.

• Beren ezgaitasuna dela eta, lanean, jarduera okupazional edo eguneko zentro batean aritzea ezinezkoa zaien pertsonak.

Ez dago daturik ezgaitasunaren baloraziotik egoera guzti horiek ezagutzeko, gainera denboran zehar alda daitezke.

2. Horietako zenbatek jaso lezakete laguntza aipatu foru aginduan ezarritako baldintzak betetzeko?

Berez, jarduera okupazional edo eguneko zentro batean dauden pertsonak jaso dezakete laguntza ekonomikoa prozedura honen bidez. 800 pertsona direla kalkulatu da.

Jarduera horren bilakaera aztertzerakoan kontuan hartuko dira laguntzarik gabe gelditzen diren egoera eta kasuak, beharrezkotzat jotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatzeko.

3. Zenbatek jasotzen dute gaur egun laguntza hori aipatu baldintzak betetzeagatik?

Momentu honetan aurkeztu diren 42 eskabideak tramitatzen ari dira.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri: Calixto Ayesa Dianda

Buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 17ko 3 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, 1999ko irailaren 2an, buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1) Nafarroan bere buruaz beste egin duten pertsonen kopurua, azken hamarkadan (1990-1999), sexuaren eta adinaren arabera.

1. eta 3. taulek Nafarroan suizidioen ondoriozko heriotza kopuruek izan duten garapena jasotzen dute eta Espainia eta Europako herrialdeetako tasekin alderatzen. Suizidioen guztizko kopuruek eta tasa doituek argi erakusten dute

Nafarroan bere buruaz beste egin dutenen kopurua handitu egin dela 1975tik aurrera.

Nafarroako datuak interpretatu eta baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da epe horretan heriotza-tasen estatistikak egiteko moduan aldaketa garrantzitsuak izan direla. 1986. urtera arte Madrilen kodifikatzen ziren Heriotzari buruzko Estatistiken Boletinak; baina urte horretatik aurrera erantzunkizuna autonomia erkidegora pasa zen. Deszentralizazio horren eraginez, 1986tik aurrera Osasun Publikoaren Institutuak esanen zuen, boletineko informaziotik abiatuz, heriotzaren kausa zein zen. Urte hauetan zehar, boletín horretako informazioa Nafarroako auzitegi-tako medikuen informazioarekin osatu da. Helburua izan da kanpoko kausen eraginez (suizidio, istripu eta hilketak) gertatutako heriotzei buruzko estatistiken kalitatea hobetzea, saiatuz, beti ere, azkenean argitaratzen diren estatistiketan ager zitezen. Beraz, uste dugu heriotza-tasen estatistikak deszentralizatu izana dela igoera horren arrazoi-tako bat, eta bestalde, egungo kopuruek hobeki islatzen dituztela suizidio errealak, 70. hamarkadan argitaratzen zirenek baino. Beste autonomia erki-degoetan egoera ezberdina da: batzuetan deszentralizazioa beranduago gertatu da edo ez da gertatu. Gainera denek ez dute auzitegi-medikuen informaziorik.

Nafarroako egungo kopuruak Espainiako batez bestekoaren inguruan dabilta. Suizidioen ondo-

riozko heriotza-tasen igoera hori Espainian ere epe berean gertatu da, alegia, 60ko eta 80ko hamarkaden artean, INEk dioenez. Europari dagokionez, Nafarroako tasa oraindik ere txikiagoa da Europako herrialde askorekin konparatuz, nahiz eta Italia moduko herrialdeetara hurbiltzen

ari den.

Ondorioz, azken urteotan suizidioei buruzko estatistiken kalitatea hobetu da eta baita heriotze-tasa igo ere. Igotzen jarraitzen badu, inola ere ezingo da horren errua metodologia aldaketei egotzi.

1. taula. Suizidioen ondoriozko heriotzen garapena Nafarroan 1975tik 1998ra.
INERen datuak (1975-1995) eta Nafarroako Estatistika Institutuarenak (1996-1988)

	1975	1976	1977	1978	1979	1980	1981	1982	1983	1984	1985	1986
Gizonezkoak	10	8	6	17	16	21	19	17	18	15	18	36
Emakumezkoak	3	4	4	3	1	5	7	7	3	2	5	8
Guztira	13	12	10	20	17	26	26	24	21	17	23	44
	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Gizonezkoak	32	24	30	32	16	32	43	32	29	33	36	39
Emakumezkoak	9	5	7	11	13	17	11	8	12	9	8	9
Guztira	41	29	37	43	29	49	54	40	41	42	44	48

* 1996-98an soilik Nafarroako heriotzak jaso dira, ez beste komunitate autonomoetan gertatutakoak.

2. taula. Suizidioen ondoriozko heriotza-tasen garapena 1981tik 1995era.
Nafarroa. (Tasak 100.000 biztanleko, Europako biztanleriari doituak)

	1981	1982	1983	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Gizonezkoak	8,04	6,67	7,19	6,25	6,79	14,3	11,6	9,51	10,8	11,6	5,47	11,7	15,6	11,2	9,83
Emakumezkoak	2,83	2,76	1,07	0,69	1,92	2,97	2,94	1,67	2,04	3,47	4,36	5,62	3,45	2,51	3,87
	1981-85		1986-90			1991-95		% aldaketa 81-85 vr 91-95							
Gizonezkoak	6,99		11,6			10,7		53,8							
Emakumezkoak	1,85		2,6			4,0		113,7							

3. taula. Doitutako suizidio tasak,
Europako 100.000 biztanleko.

Europako biztanleriari doitutako tasak

Herrialdeak	Urtea	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Alemania	1994	21.7	7
Austria	1994	32.2	10.4
Espainia	1992	10,8	3,0
Finlandia	1994	42.3	11.4
Frantzia	1993	30.4	10.5
Grezia	1994	5.1	1.2
Holanda	1994	13.8	6.1
Irlanda	1994	13.2	3.9
Italia	1992	11.2	3.5
Norvegia	1993	20.3	6.1
Portugal	1994	12.2	2.9
Erresuma Batua	1994	11.5	3.1
Suedia	1993	20.9	8.9
Suitza	1994	29.6	10.9
Nafarroa	1981-85	6,9	1,8
Nafarroa	1986-90	11,6	2,6
Nafarroa	1991-95	10,7	4,9

Iturria: World Health Statistics. 1995

2) 1990-1999 aldirian Nafarroan buruaz beste egiteko izan diren saioen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera; horietan, adierazi zenbat diren buruaz beste egiteko lehen saioak eta zenbat behin baino gehiagotan saiatu direnak.

Ez dago horri buruzko informaziorik osasun sisteman.

3) Adimen gaixotasunekin loturiko zenbat suizidio kasu eta suizidio ahalegin izan dira Nafarroan 1990-1999 aldirian.

Ez dago horri buruzko informaziorik osasun sisteman.

4) Egin al da azterketarik Nafarroan buruaz beste egiteko jokoeretan eragina duten arazoei buruz.

Horri buruzko azterketa monografiko osatu eta zehatzenetako bat bada Nafarroan: Luis Javier LIZARRAGA LARRION medikuaren "¿Se han disparado los suicidios?, Análisis del siglo XX", 1996an argitaratua Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuaren laguntzaz. Liburu horrek, besteak beste, kontuan hartzen ditu iturri judizialeko datuak eta sakonki aztertzen ditu buruaz beste egiteko jokoaren kausei buruzko hipotesiak.

Adimen asaldurak dituzten pertsonen kopurua, alegia, % 53, azterketa horretatik hartu da. Bertan, zoroetxean erregistratutako suizidioak (adi-

men gaixotasunak dituzten pertsonak) eta Nafarroa osoan gertatzen direnak konparatzen ditu; hau da, irizpide soziologiko bat darabil: "adimen gaixotasuna duen pertsona da zerbitzu sanitarioek tratatzen dutena". Bestalde, bere azterketaren metodologia dela eta, jatorri judizialeko iturriak darabiltza, ez ditu berez buruaz beste egiteko ahaleginak direnak kontuan hartzen, baizik epaileek ikertutako kasuak.

Ikerketaren ondorio gisa, Lizarraga medikuak baieztatzen du Espainian, berrogei urtetan gutxiagotzeko joera egon den arren, 1983tik aurrera gehitze adierazgarria gertatu dela, faktore ekonomikoaren eta sekularizazioaren ondorioz (Nafarroan ere faktore garrantzitsuak dira horiek). Nafarroako tasak historian zehar Espainiako batez bestekoa-aren azpitik ibili dira.

5) Nolako laguntzak jasotzen dituzte Nafarroako familiek beren familiartekoek buruaz beste egiteko ahaleginak egin eta gero?

Buruaz beste egiteko ahaleginei laguntzea da Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lehentasunetako bat, larrialdi medikoak baitira: larrialdietarako zerbitzuek laguntzen dute, batez ere ospitaleko larrialdi zerbitzuek.

Halaber, Adimen Osasuneko Sareko zerbitzuetan lehentasuna dute ere. Adimen Osasuneko Sareko zerbitzuen jarduketak buruaz beste egiteko ahaleginak neutralizatu eta kontrolatzen laguntzen du, eta azpian dagoen asaldura edo patologiarene tratamenduan jartzen du arreta. Horregatik, informazio sisteman ia ia ez da agertzen buruaz beste egiteko ahalegina kontsultaren arrazoi gisa, baizik eta azpian dagoen asaldura: depresioa, psikotikoa, nortasunarena...

Buruaz beste egiteko ahaleginaren azpian dagoen asaldura tratatzeari dagokionez, lehenik eta behin interkontsulta psikiatrikoak egiten dira.

Ospitaleei dagokionez, Bideko Ama Birjina Ospitalean eta Nafarroako Ospitalean, ospitaleratze psikiatrikoko unitateetako profesionalen erantzunkizuna da. Reina Sofía eta García Orcoyen ospitaleetan Tutera eta Lizarrako eremuetako (hurrenez hurren) adimen osasun zentroetako profesionaleri dagokie. Ospitaleen eremutik kanpo, adimen osasun zentroetako profesionaleri dagokie, normalean oinarriko osasun laguntzako medikuen eskariz. Horretaz gain, adimen osasun zentro guztiek larrialdietarako laguntza zerbitzua dute zuzenean haiengana jotzen duten guztientzat.

Adimen osasun zentroen eta ospitaleratze psikiatrikoko unitateen funtzionamendu-ordutegiez kanpo, interkontsulta psikiatrikoa larrialdi psikiatri-

koko zerbitzuaren esku gelditzen da zerbitzu hori Bideko Ama Birjina Ospitalean eta Nafarroako Ospitalean dago. Zerbitzu honek ematen dituen zerbitzuen artean, oinarrizko osasun laguntzako eta larrialdi berezietako medikuak aholkatzea ere sartzen da.

Lehenengo balorazioa egin ondoren eta larrialdi medikoari berari aurre egin ondoren, beharrezkoa bada, azpian dagoen arazo psikiatrikoa tratatzeari ekiten zaio, egokien irizten den ospitaleko edo ospitaletik kanpoko zerbitzuan. Tratamendu horretan, Nafarroako Osasun Zerbitzuak familiar-tekoei aholku eta laguntza ematea ere sartzen da, bai berezkoak dituen bide formaletera joz –familiar-tekoei kontsultak, familia edo bikote psikoterapia–, bai familiari argibideak emanez eta terapiaren fase ezberdinetan zehar erabakiak hartu behar direnean euren hitza kontuan hartuz.

6) Adimen gaixoen familiar-tekoei gaixoei botika gehiegi ematen zaizkielako etengabe egiten dituzten kexuak direla eta, hona zenbait galdera:

Ustezko botika gehiegikeria –hau da, sintoma eta asaldura errearen aurrean medikuaren errezeta desegokiak gehiegikeriagatik– jardunbide okerra eta administrazioak bere kabuz jazarri behar duen kasua da. Ez dago horrelakorik Nafarroako Osasun Zerbitzuan. Ez da ere horren kexurik jaso –botika gehiegikeria– bezero edo familien aldetik. Bai egon direla kexuak psikofarmakologiaren prozedura osagarriak gutxi garatzen direla eta, batez ere gaixotasunaren fase larriena gainditi eta errehabilitazioan dauden adimen gaixotasun larriko pertsonen zuzendutakoak.

Horixe izan zen Nafarroako Osasun Zerbitzua 1996 eta 1997 bitartean aholkatu zuen “Gaixo Psikiatrikoak Errehabilitatu eta Gizarteratzeko Adituen Batzordearen” ondorioetako bat. Bere aholkuei jarraikiz, Adimen Osasuneko Errehabilitaziorako Klinikaren proiektua egin zen (abuztuaren 17ko 247/1998 FD).

Klinika hori Espainian arlo horretan dauden esperientzia puntakoenei jarraikiz diseinatu zen. Psikofarmakologiaren osagarri diren zerbitzuak eskaintzen ditu, eta psikologia kliniko eta sozioterapia prozesuetan jartzen du arreta. Batetik, ospitaleratze osoan eta partzialean dauden gaixoei zerbitzu propio eta trinkoa eskaintzen die, eta bestetik, adimen osasun zentroetako profesionalei aholkularitza teknika eskaintzen die prozedura mota horiek ezartzeko. Nafarroako Osasun Zerbitzuaren asmoa datorren legegintzaldi honetarako klinika horren zerbitzuak indartzea da, eta baita adimen osasun zentroetan psikofarmakologiaren

osagarri izanen diren prozedura klinikoak ezartzea ere.

6.A) Egin al da gai honi buruzko azterketarik?

Emandako laguntza sanitarioaren kalitatea da Nafarroko Osasun Zerbitzuaren kezkarik handienetakoa. Kasu honetan, botika errezeten jarraipena egitea Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritzari atxikitako Farmazi Prestazioen Zerbitzuaren eginbeharra da.

Zerbitzu horrek zenbait botika psikotroporen errezetak gehitu direla ikusi du, eta batez ere, horien ondorioz gastua handitu dela. Batez ere, antidepressiboak eta neuroleptiko berriak eta alzheimerren aurkako botikak dira.

Kasu guztietan aurretik emandako erabileratik kualitatiboki ezberdintzen den erabilera gertatzen da. Antidepressibo eta neuroleptikoei dagokienez, lehenengo botikak erabiltzeari utzi zaio –errezetaren desplazamendua–, medikuen oharrak gehitu dira –koadro obsesibo eta konpulsiboak, elikaduraren nahasketak... antidepressiboentzako; eskizofreniaren sindrome defizitarioak neuroleptikoentzako– eta baita horiek har ditzaketen erabiltzaile motei buruzko argibideak ere –adinekoak, botika asko hartu behar dituzten gaixoak, haurrak...–. Alzheimerren aurkako botiken kasuan, aurretik ez zegoen lerro terapeutiko baten aurrean gaude.

Garapen hau gaur egun psikofarmakologiaren gertatutako aurrerapenekin bat dator. Aurrerapen horiek botikek aurrekoek baino ohar gehiago izatea ekarri dute, eta toxikotasun eta bigarren mailako efektu gutxiago dutenez, baita hartzaile mota gehiagorengan aplikatzea ere. Ez da jardunbide okerreko kasurik antzeman.

6.B) Osasun kontseilaritzaren iritziz, ba al du loturarik adimen gaixoen ospitaleko egonaldia laburtzearekin eta gizarte eta osasun baliabideen eskasiarekin?

Ez. Ez dira botika gehiegi eman eta ez dira ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan batez besteko egonaldia laburtu. Botikek ezin diete izaera sozialeko beharrei erantzun, ez gaixo psikiatriko kronikoen kasuan ez eta bestelakoetan ere.

6.C) Esan al daiteke une honetan botikak ari direla betetzen adimen gaixo kronikoen gizarte eta osasun baliabideen gabezia?

Ez. Zentro sanitarioak dira adimen gaixo kronikoen osasun baliabideen gabezia betetzen ari direnak, eta batez ere ospitaleak –ospitaleratze psikiatrikoko unitateak, errehabilitaziorako klinika, eguneko ospitaleak, drogomenpekotasuna dutezentzako komunitate terapeutikoak...–, horiek giza

eta gizarte larrialdiengatik behartuta baitaude jendea hartzera edo altak atzeratzera justifikazio klinikorik gabe.

7) Datuei erreparatuta, etengabe jaisten ari da gaixoeak ospitaleratze unitateetan egoten diren aldiak, batez ere ospitale pribatuetan. Ez al zaio jaitsiera hori zor gero eta gaixo gehiago larrientzako unitateetan ospitaleratzeari edo berriz ospitaleratzeari?

	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Oheak	59	55	58	58	54	54	54	54	54	54	54	54
Eg. batez beste	14,6	14,1	15,7	19	19,8	18,3	19,7	22,8	24,1	20,7	22,3	22,9

Kopuru horiek Espainiako gainerakoekin konparatu behar dira eta baita adituek aholkatutakoekin ere. Adimen Osasuneko Inkesta Nazionalak 1996 urterako (estatuari buruzko datuak dauden azken urtea) ematen duen batez besteko egonaldia 17,7 egunekoa da, ospitaleratze laburreko programetan (ospital orokorra eta psikiatrikoa). Hona kopuru horren muturrak: Valentziako Komunitatean batez besteko egonaldia 13,9 egunekoa da eta Kantabrian 26,4koa. Adituek proposatzen dituzten batez besteko egonaldiaren kopuruak (OME, Arartekoa, elkarte profesionalak...) 15 egunetik 20 egunera bitartekoak dira.

Bataz besteko egonaldiaren garapena ezberdina da klinika psikiatrikoetako ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan –Elizondoko Benito Menni eta Iruñeko Padre Menni– bestelako arrazoiak direla eta. Bi klinika horiek Nafarroako Osasun Zerbitzuari lotuta daude –Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza, Adimen Osasuneko Zuzendariordetza– ospitaleratze psikiatrikoko araubidean laguntza zerbitzua emateko itun baten bidez, ospital orokorreko ospitaleratze psikiatrikoko unitateen osagarri gisa. Zentro horietan ospitaleratzen dira Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuek ospitaleratze psikiatrikoko unitatean ospitaleratzea agintzen dutenean eta ez dagoenean oherik Bideko Ama Birjina Ospitalean eta Nafarroako Ospitalean. Itun horrek ahalmena ematen dio Nafarroako Osasun Zerbitzuari emandako zerbitzuak koordinatu eta ikuskatzeko. Azken batean, gaixo akutuak ospitaleratzeko Nafarroako Adimen Osasuneko Sare Publikoak dituen oheak dira, eta Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko unitate psikiatrikoen zerbitzu bera eman behar dute.

Ez. Lehenik eta behin ez dago halako jaitsierarik. Ospitale orokorretako (Nafarroako Ospitalea eta Bideko Ama Birjina Ospitalea) ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan egiten duten batez besteko egonaldia, oinarrian, egonkorra izaten jarraitzen du, 1991tik aurrera (urte horretan oraingo ohe kopurua ezarri zen) urtero gorabehera txikiak gertatu diren arren. Alderantziz, batez besteko egonaldia pixkat handitu egin da, baldin eta 90. hamarkadako bigarren erdialdeko datuak aurrekoekin konparatzen baditugu. Hona hemen:

Klausula hori aplikatzean ikusi zen klinika horietako gaixoen perfila ez zela Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko unitateetan sartutako gaixoena bezalakoa: arrazoi sozialak zirela eta justifikazio klinikorik gabe bertan sartutako gaixoen kopurua handia zen. Ziurrenez, badu zer ikustekorik klinika horietako zerbitzuekin, akutuei laguntzeaz gain egoitza eta psikogeriatrikoa eskaintzen baitituzte.

Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaileei egindako kaltea ikusirik eta klinika horietako arduradunekin koordinatuz, gaixoen perfil klinikoa aztertzeke neurriak hartzen hasi ziren. Halaber, behar ez bezala ingresatu eta bertan atxikitako gaixoei alta ematen hasi zitzairen (beste gizarte zentro batzuetara bidaliz) eta klinika horien, eguneko ospitaleen eta Nafarroako Adimen Osasuneko Sareko adimen osasuneko zentroen arteko koordinazioa hobetzeari ekin zitzaion.

Hona hemen emaitzak (bataz besteko egonaldia):

	95	96	97	98
Benito Menni	101	53,8	47,9	30,1
Aita Menni	40,6	36,7	31,5	24,8

Alegia, ospital orokorretako unitateetan egindako batez besteko egonaldietara etengabeko hurbilketa gaixo berrien perfil klinikoaren hurbilketaren ondorioz, oraindik bukatu gabe dagoen bateratze prozesuan.

Klinika horietan ez da batez besteko egonaldia murriztu ingresuen kopurua handitzeagatik. Ingresuak gehitu dira, alegia, akutuak ospitaleratzeko plazak gehitu dira, ingresatutako gaixoen perfila eta eskaintzen diren zerbitzuak berez ospitalera-

tze psikiatrikoko unitateen helburua denera doitu direlako. Hala, oraindik ere batez besteko egonaldia adituek aholkatzen dutena baino handiagoa da.

8) Zenbat langile (psikiatrak, psikologo klinikoak, erizainak, gizarte-langileak, terapeuta okupazionalak, laguntzaileak eta abar) dituzte Bideko Ama Birjina Ospitaleak, Nafarroako Ospitaleak, Unibertsitate Klinikak, Aita Menni Ospitaleak eta N.S. del Pilar Ospitaleak adimen gaixoen egonaldi aurre egiteko? Ba al dago ezarritako moduluren bat gaixo larrien ospitaleratze unitateetako beharrei erantzuteko?

Hona hemen Adimen Osasuneko Sare Publikoko gaixo akutuen ospitaleratze unitateetako langile kopurua 1999ko urrian:

a) Ospitaleratze psikiatrikoko unitateak ospital orokorrean

	OPU Bideko Ama Birjina	OPU II Nafarroako Ospitalea
Psikiatra	4	3
Psikologo		1
OLT- EDU	10	10
Gizarte lang.	1	1
Laguntzailea	21	21
Okupazionala	1	1
Ohe kopurua	27	27

Unitate horietako medikuak gaixo akutuen ospitaleratze programaz arduratzeaz gain, Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko Bitarteko Psikiatriaren beharrez ere arduratzen dira (beste espezialitateek eskatutako interkontsulta psikiatrikoa) eta baita bi ospitale orokor horietako larrialdi orokorretako laguntza psikiatrikoaz (atezainak).

b) Akutuak ospitaleratze programan, klinika psikiatrikoan

	Aita Menni Iruña	Benito Menni Elizondo
Psikiatra	2,5	1,31
Psikologoa	0,5	0,5
OLT- EDU	4,333	2,62
Gizarte lang.	0,5	0,15
Laguntzailea	5,166	5,84
Okupazionala	0,3	
Monitoreak		1,5
Ohe kopurua	21	17

Aita Menni eta Benito Menni kliniketarako, soilik akutuak ospitaleratze programan aritzeko gutxi gorabehera zenbat langile behar den zehaztu da. Egoitza eta psikogeriatría zerbitzuak dituzten klinika psikiatrikoak direnez, akutuak ospitaleratze programak ez ditu unitate itxiak eratzen, eta euspen eta laguntza lanak, hein batean, klinikako langileria orokorrak egiten ditu. Medikuek ez dute zertan ziurtatu bitarteko psikiatria zerbitzurik edo larrialdi orokorretarako. Langileek astean 40 ordu lan egiten dute. Bestalde, okupazio indizea txikiagoa da ospital orokorren unitateetakoena baino –% 70 Benito Mennin, % 80 Aita Mennin– eta beraz, teorikoki dagoen ohe kopuruak ez du OPUetan duen garrantzia bera –okupazio indizea: % 97,8–.

Hona hemen Nafarroako Unibertsitate Klinikako Psikiatria Departamentuko zuzkidura:

Ospitaleratze oheak: 33
Psikiatrian espezializatutako medikuak: 7
Psikologoak: 2
Mediku egoiliarak: 8

Erizainak solairuan:

Gainbegiraleak: 1
Erizainak: 12
Terapia okupazionalerako erizainak: 2
Laguntzaileak: 3
Psikiatria espezialitateko erizain ikasleak: 4

Erizainak kontsultan:

Erizainak: 3
Laguntzaileak: 1

Beste langileak:

Administrari laguntzaileak: 2

Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du finkatutako langile modurik ez ospitaleratze psikiatrikora, ez eta ospitaleko beste zerbitzuetarako, edozein delarik ere espezialitate medikoa.

Erakunde sanitario eta elkarte zientifikoetako aholkuek ohe/biztanle tasak eta unitateen tamaina eta izaera aipatzen dituzte, baina ez egokitzen jotzen diren langileak.

9) Azken urte hauetan gaixo larrien unitateak gaintuta egon dira; beste aldetik, Iruñean biltzen dira gehienak. Bi inguruabar horiek direla eta, hona zenbait galdea:

Unitate horiek ez daude gaintuta. Gertatu dena da ospitaleratze laburrerako ohe psikiatrikoak gehitu direla eta aldi berean eskaria handitu dela. Azken honetan zerikusia handia izan du gizarte zerbitzuen gabeziak, eta baita adimen osasuneko zentroek adimen asaldura larrien

aurrean eman duten orientazio urriak ere. 1999ko datuek aditzera ematen dute eskaria egonkortu dela: 1999ko urtarrila eta abuztuaren artean Aita Menni eta Benito Menni kliniketako egonaldi kopurua gutxitu da, gutxi gorabehera % 10ean 1998ko aldi bereko datuekin alderatuz.

Antzemandako beste fenomenoak, ospitaleetan, beste espezialitateetan gertatzen direnen antzekoak dira. Adibidez, larrialdien zerbitzua erabiltzea laguntza arinago jasotzeko, momentu jakin batean eta lehentasunik gabeko eskaera jakin baten aurrean oherik ez izatea...

Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du ospitaleratze psikiatrikoko oherik ez izateagatik laguntza egokia ematea ezinezkoa suertatu den kasu bakar baten berririk medikuek berretsitako larrialdi klinikoaren kasuan, ez eta bestelako kasuetan ere.

9.A) Zer neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak egonaldi laburreko ospitaleratzeetarako plaza gehiago egon dadin?

Ospitaleratze laburretarako Nafarroako Adimen Osasuneko Sare Publikoan 1998an zegoen plaza kopurua 14,8koa zen (oheak/100.000 biztanleko). Kalkulu hori egiteko ez dira kontuan hartu batetik, Josefina Arregui Klinikako oheak, duten perfil psikogeriatrikoagatik –hala ere, batez besteko egonaldia 26,7 egunekoa da eta beraz, ospitaleratze laburrekoak dira–, eta bestetik, Unibertsitate Klinikako Psikiatria solairuan Nafarroako Osasun Zerbitzuak finantzatutako egonaldietarako oheak.

Espanian akutuak ospitaleratze batez besteko oheen tasa (100.000 biztanleko) 10,6koa da eta adituen aholkuak 8 eta 13 kopuruen bitartean dabilta, kontuan hartzen den batez besteko egonaldiaren arabera (15 edo 20 egun). Alegia, Nafarroako tasa handiagoa da, bai Espainiako batez bestekoarekin konparatuz eta baita adituen aholkuekin konparatuz ere.

Kopuru horiek handiagoak dira kontuan hartzen baditugu eguneko ospitalean antzeko erabiltzaileentzako dauden plazak.

Beraz, ez dago plaza gabeziarik eta agerikoa da bestelako beharretarako erabiltzen direla, oker erabili ere: egoitza beharretarako, familiaren atsedendaldirako, zainketa judizialerako... eta baita adimen osasun zentroek adimen asaldura larriei behar bezala aurre egiteko dituzten zailtasunen ondorioz sortutako beharretarako ere.

Nafarroako Osasun Zerbitzuko politika azken legegintzaldian aplikatutakoaren ildo beretik joan da: ingresuen perfila eta zerbitzuak egokitzea Adimen Osasuneko Sare Publikoan akutuak ospi-

talertzeko zentroek (bai publiko bai pribatuek) dituzten berezko lanetara; horien, eguneko ospitaleen eta adimen osasuneko zentrozen arteko koordinazioa hobetzea; adimen osasuneko zentroetan adimen gaixotasun larriak dituztenak laguntzeari lehentasuna ematea.

9.B) Nola balioesten du Osasun Departamentuak ospitale-unitate pribatuetan 95etik 98ra %530 igo izana ospitaleratutako adimen gaixoen kopurua?

Kopuru hori ez da zuzena. Kontuan hartuz, Aita Menni eta Benito Menni klinika psikiatrikoetako ingresuak, horietarako soilik baitago gainezkatzeko hitzarmen bat, ospitale orokorretako unitate psikiatrikoekiko izan den igoera % 286koa da. Unibertsitate Klinikako ingresuak lehenengo aldiz Adimen Osasuneko Sarearen 1998ko memorian ageri dira, baina hona hemen aurreko urteetakoak:

	1995	1996	1997	1998
Ingresuak	106	103	115	118

Kontuan hartuko bagenu Unibertsitate Klinikako finantziario publikoko ingresuak, igoera txikiagoa litzateke, hau da, % 131. Dena den, ariekta hori erabat teorikoa da, Unibertsitate Klinikarekin egindako hitzarmenak izaera orokorra baitu klinika osoarekin, eta solairu psikiatrikoko zerbitzuak ez baitira ospitale orokorretako ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan daudenen berdina –erabiltzaileak askotan klinikako beste zerbitzuen erabiltzaile ere badira, patologia mota jakinera bideratutako eskaintza...–. Horregatik, normalean ez dira ohe horiek akutuak ospitaleratze oheen tasa lortzeko kalkuluan sartzen.

Dena den, ingresuen igoera kontuan hartzekoa da. Hala, Nafarroako Osasun Zerbitzuak ahalegin handia egin du akutuen ospitaleratze psikiatrikoko oheak gehitzeko, eta ondorioz, Espainiako gainerrako lekuetako kopuruak eta baita nazioko eta europako adituek aholkatutakoak ere gaintitu dira.

9.C) Aurreikusi al da Adimen Osasunaren sare publikoa zabaltzea Erribera aldera adimen gaixentzako egonaldi laburreko ospitaleratzeetarako ospitale-unitate bat jarritz?

Adimen Osasuneko Sare Publikoak Tuterako eremuan badu eguneko zerbitzu bat. Zerbitzu horrek 10 plaza ditu eta gaixo akutu eta azpiakutuen denbora partzialeko ospitaleratze zerbitzua eskaintzen du, besteak beste. Zerbitzu honen ondoriozko egonaldiak (Adimen Osasuneko Sarearen jardueraren urteko memorian jaso dira)

1998an 1.200 izan dira, 17,6 egunekoak batez beste.

Gaur egun ez dago proiekturik Tuterako eremuan osoko denborako ospitale unitaterik sortzeko, adimen gaixo akutuak ospitaleratzeari begira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Radioterapia tratamenduaren eteteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal foru parlamentario andreak radioterapia tratamenduaren eteteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 8ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, 1999ko irailaren 30ean, radioterapia tratamenduaren eteteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Noizko konponduko da delako matxura hori?

Azeleratzaile linealaren matxura urriaren 4an konponduta gelditu zen. Egun horretan, berriz ekin zitzaion gaixoak tratatzeari.

2. Zenbat gaixo onkologikorengan izan du eragina radioterapia tratamenduaren eteteak?

Azeleratzaile linealaren jarduera eteteak 57 gaixorengan izan zuen eragina.

3. Zein alternatiba eman zaie gaixo horiei tratamendua hartzeko, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu hori abian jartzen den bitarteko?

Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuak banan-banan aztertu zituen kasuak eta bere irizpide tekniko eta klinikoan oinarrituz, erabaki zuen terapia etetea gomendagarria ez zen kasuetan tratamenduarekin jarraitzea Kobaltoterapia Unitatean. Hori egitea beharrezkoa izan zen 4 gaixoren kasuan.

Ez zen beharrezkotzat jo, betiere medikuen irizpide profesionala tarteko, gaixoak Nafarroako Unibertsitate Klinikara bidaltzea.

4. Informaziorik eman al zaie gaixoei edo haien familiartekoei gertatutakoari buruz?

Horri buruz Onkologia Zerbitzuak egindako txostenari jarraikiz, gaixoei behar bezala jakinarazi zitzaien.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 10ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

NOZeko langile fakultatiboan lanbide karrera aplikatzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak NOZeko langile fakultatiboan lanbide karrera aplikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, 1999ko urriaren 6an, O-NOZeko langile fakultatiboan lanbide karrera aplikatzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. 11/1999 Foru Legearen aplikazioaren kostu ekonomikoa; zehaztu bitez osasun zentroak eta baita osasun profesionalek jaso dituzten zenbatekoak eta zergatiak ere.

Apirilaren 6ko 11/1999 Legeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboan lanbide karrerako sistema arautzen du. Hona hemen, lege hori aplikatzearen ondorioz 1996-1999 aldian sortutako kostu ekonomikoa, erakunde autonomoaren menpeko zentro bakoitzean:

Proiektua	Zentroa	Kostua (PTA)
40000	Zerbitzu Nagusiak	374.780
40002	Laneko Arriskuak	374.780
41001	Nafarroako Odol Bankua	374.780
41002	Espezialitateen Anbulatorioa	1.453.942
42000	Nafarroako Ospitalea	115.387.538
43000	Bideko Ama Birjina Ospitalea	148.949.808
43001	Emakumeen laguntzarako zentroak	10.979.416
44000	Ubarmin klinika	8.421.952
45000	Tuterako Ospitalea	37.056.110
45001	Tuterako Oinarrizko Osasun Laguntza	19.090.946
46000	Lizarrako Ospitalea	16.774.856
46001	Lizarrako Oinarrizko Osasun Laguntza	11.347.574
47000	Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza	3.696.000
47001	Iruñeko Oinarrizko Osasun Laguntza	89.937.822

47002	Adimen Osasuna	13.936.972
47004	Zentro Psikogeriatrikoa	2.196.880
48000	Prestazioak eta Itunak	1.124.340
49000	Nafarroako Osasun Publikoko Institutua	3.373.020
49001	Antzemate Goiztiarra	749.560
Guztira		485.601.076

2. Foru lege hau osasun profesionalei aplikatzeke baliatzen diren sistema arautuen definizioa azaldu; hots, jarduera profesionala ebaluatu, eza-gutu eta saritzeko sistemen definizioa adierazi.

11/1999 Foru Legearen arabera, lanbide karreraren mailaz igotzeko beharrezkoa da egonaldi jakin batzuk betetzeaz gain, fakultatiboaren jarduera profesionalaren ebaluaketa egitea. Ebaluazio hori legea garatzeko erregelamenduzko xedapenetan onetsiko den baremoaren arabera egingen da. Beraz, aipatutako foru legea aplikatzeko baliatutako sistema arautuak; hots, jarduera profesionala ebaluatu, eza-gutu eta saritzeko sistemak lege hori garatzeko arauetan finkatuko dira. Arau horiek momentu honetan onesteko daude eta legea indarrean sartzen denetik aurrera gertatuko diren mailaz igotzei aplikatuko zaizkie.

Halaber, moldatze sistemaren indarraldi iragankorra bukatu (1995eko abenduaren 31an) eta 11/1996 Legea indarrean sartzen den bitarteko epea aipatutako legearen xedapen iragankorretan berariaz tratatzen da, eta horixe da gaur arte aplikatu dena lege horri dagokionez.

3. Osasun profesionalei emandako zenbateko-gehikuntzak azaldu, arrazoiak emanez eta legearen xedeak kontuan hartuz.

Aurreko puntuan adierazitakoari jarraituz, 11/1999 Foru Legea aplikatzearen ondorioz osasun profesionalei emandako zenbateko-gehikuntzak zuzenean lege beraren xedapen iragankorren arabera zehaztu dira, eta lanbide karrerako maila ezberdinetarako osagarrien zenbatekoak legearen lehen xedapen gehigarrian ezartzen dira.

4. Foru legea aplikatuta osasun fakultatiboak motibatzea eta bultzatzea lortu ote da; zer ebaluazio egin du Nafarroako Gobernuak helburu horien lorpenari buruz.

11/1999 Foru Legea aldarrikatzearen ondorioz, osasun fakultatiboak motibatu eta bultzatzeko helburuak lortzea, logikoki, garapenerako erregela-

menduzko arauak ezarririk aipatutako legea osoki aplikatzearen menpe dago. Bestalde, aipatutako foru legea onesteak gai horren inguruan badu bestelako eraginik; alegia, 1996 eta 1999 bitartean lanbide karrera sistemarik indarrean ez egotearen ondorioz sortutako egoerari erantzun bat ematea.

5. 11/1999 Foru Legea aplikatzeak ekarri dituen osasun laguntzaren hobetze kuantitatibo eta kualitatiboak zehaztu.

Alderdi hori ere 11/1999 Foru Legea garatzeko erregelamenduzko arauak onestearen baldintzapean dago. Arau horiek aipatutako legearen 7. artikulua baremoko balorazioari buruz ezarritakoa bete beharko dute: batetik, laguntza jarduera, helburuak zehaztu eta emaitzak ebaluatzeko sistemaren arabera ebaluatua; eta bestetik, zentro edo zerbitzuetako laneko antolaketa eta sistemetan zuzenean eragina duten proiektuak prestatu eta gauzatzea.

6. Zein kasutan izan da kontuan, adierazle gisara, etengabeko prestakuntza.

Borondatezko etengabeko prestakuntza zuzendaritza-kudeaketa, prestakuntza eta ikerketa eta garapen teknikoaren adierazlea da. Azken horiek, nahitaez, 11/1999 Foru Legea garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezarriko den baremoan jaso beharko dira, eta oraingoz, xedapen horiek ez dira eman.

7. 11/1999 Foru Legea aplikatzeak zer bide sortu ditu profesionalak osasun-zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketan gehiago eta modu eraginkorragoan esku hartu dezaten?

Afera horren inguruan, aurreko idatz-zatietan 11/1999 Foru Legea erregelamendu bidez garatzeko beharrari buruz esandakoa errepikatu beharra dago. Erregelamenduzko garapen horrek lanbide ebaluazioko irizpideen artean sartu beharko du zuzendaritza eta kudeaketa arloko erantzunkizun jardueretan aritzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Anbulategietako Kanpoko Kontsultetan aldi baterako lan egiteko lan-kontratuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ambulategietako Kanpoko Kontsultetan aldi baterako lan egiteko lan-kontratuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeko Félix Puyo Rebollo foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 1999ko urriaren 7an, Kanpoko Kontsultetan aldi baterako lan egiteko lan-kontratuei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Kanpoko Kontsulten zentroan, aipatutako epean lan egiteko kontratatutako administrazioko langileen hautapena (langileen zerrenda hasiera eta bukaera egunak zehaztuta emana dago) azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 37. artikuluan ezarritako prozeduretako bati jarraikiz egin zen. Foru dekretu horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuetan sartu eta lanpostuak betetzea arautzen du.

Kontratazioen kopurua dela eta, ez dago kasu bakoitzean erabilitako prozedura zehazten duen zerrendarik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Ikastetxeetan egiten diren errehabilitazio saioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Delgado López foru parlamentario andreak ikastetxeetan egiten diren errehabilitazio saioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Delgado López foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ikastetxeetan egiten diren errehabilitazio saioei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Mugimen-urritasuna izan eta etengabeko errehabilitazio fisikoa behar duten ikasleek fisioterapeuten laguntza jasotzen dute, dagokien osasun zentroetako medikuen aginduei jarraituz. Errehabilitazioa ikastetxean egiten da ikasle horien integrazioa errazteko; gainerakoan, ikasleak egunero osasun zentrora joan beharko luke eta ikastordua galdu, eta horrek eskolako erritmoa aldaraziko lioke.

Gaur egun Nafarroako Osasun Institutuarekin lankidetzan ari gara koordinazio gehiagorekin esku hartzeko eta oporraldiak direla eta sor daitzkeen disfuntzioei konponbidea aurkitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Ikastetxe ez-unibertsitarioko ikasleen eskubide eta betebeharren araudia aldatzeko aukerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak ikastetxe ez-unibertsitarioko ikasleen eskubide eta betebeharren araudia aldatzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ikastetxe ez-unibertsitarioko ikasleen eskubide eta betebeharren araudia aldatzeko

aukerari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1) Hezkuntza Departamentuaren asmoa araudiaren eta errealitatearen arteko egokitzapenari buruz beharrezko informazioa jasotzea da.

2) Hori dela eta, Nafarroako Eskola Kontseiluari txosten bat eskatu zaio, ulertzen baita hezkuntza komunitatearen funtzionamendu egokia ziurtatzeko oinarrizko gaietako bat dela; baina ez sektore bateko adostasun edo ezadostasunagatik.

3) kontseilari honek badaki, Nafarroako Eskola Kontseilua lanean ari dela ikasleek hurrengo hila-beteetan ordezkari izan dezaten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Nafarroako Foru Komunitateko lanbide elkargoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitateko lanbide elkargoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeko Juan José Lizarbe foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du honako hauei buruz: ea Nafarroako Foru Komunitateko zenbat lanbide elkargok egokitu dituen estatutuak (Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 16ko 3/1998 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorren ezarritako betekizuna); ea Nafarroako Gobernuak neurririk hartu duen beharkizun hori bete ez duten elkargoei beharkizun hori betearazteko; ea abiarazi den Nafarroako lanbide elkargoen eta Nafarroako elkargoen kontseiluaren Erregistroa. Hona Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderei erantzun egokia eman ahal izateko, ondoko zehaztapen hauek egin behar dira:

Beste komunitate autonomoetan ez bezala, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen 19. artikulua araberak, aukerakoa da, eta ez derrigorrezkoa, Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluen Erregistroan izena ematea. Elkargoren batek erregistroan izena eman nahi izanez gero soilik aurkeztu beharko ditu bere estatutuak eta aldaketak, besteak beste.

Bestalde, 6. artikulua elkargoen autonomia printzipioa onartzen du eta xedatzen, Nafarroako lanbide elkargoen euren estatutuak autonomiaz onetsiko dituztela (legeek ezarritako mugen barruan), eta barne egitura eta funtzionamendua demokratikoa izanen ditu.

Halaber, lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen duenez, foru lege honetan araututako lanbide elkargoen erregistroko betebeharrak bete beharko dituzte, eta beharrezkoa bada, beren

estatutuak foru lege honetara egokituko, foru legea indarrean sartzten den egunetik urtebeteko epean.

Aurrekoari jarraikiz, ondoriozta daiteke foru legea baino lehenagoko Nafarroako lanbide elkargoen beren estatutuak foru lege horretan ezarritakora egokitu beharra zutela urtebeteko epean. Baina Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluen Erregistroan izena ematera beharturik ez daudenez gero, Foru Komunitateko administrazioak ezin izanen du jakin estatutuak egokitu dituztenez, ez bada lanbide elkargoen erregistroan izena eman nahi duela.

Beraz, departamentu honetan ez ditugu ezaugarritzen legea bete eta estatutuak egokitu dituzten lanbide elkargoen, eta momentu honetan, erregistroan izena ematea eskatu duten bakarrak hauek dira: batetik, lehendik dagoen Medikuen Elkargoa, eta bestetik, Industri Ingeniariei eta Administrazio Kudeatzaileei Elkargoen. Azken horiek segregazio bidez sortu dira, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legeari jarraituz.

Nafarroako Gobernuak beharkizun hori betearazteko neurririk hartu ote duen galderari erantzuteko honakoa zehaztu behar da: kontuan hartuz Lanbide Elkargoei buruzko Legearen ezarritako erregulazioa, Foru Komunitateko administrazioak har dezakeen neurri bakarra da erregistroan izena eman nahi duten lanbide elkargoei lege arazoien gatik erregistroan izen emate hori ukatzea (aipatutako testuaren 21. artikulua). Izena eman nahi ez duten elkargoei dagokienez, eta elkargoen autonomiaren printzipioa kontuan hartuz, elkargoen beraiek hartu beharko dituzte neurriak, erakunde bakoitzaren bitartekoak erabiliz.

Azkenik, adierazi behar dizut oraindik ez dela abiarazi Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Nafarroako Elkargoen Kontseiluen Erregistroa, ez baita onetsi Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea garatzeko erregelamendua. Erregelamenduen testua prestatua egon arren, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren zain dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilaria:
Rafael Gurrea Induráin

Bularreko minbiziari aurre hartzeko programako autobusari buruzko galdera, San Adrianen matxuraturik baitago

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak San Adrianen matxuratutako bularreko minbiziari aurre hartzeko programako autobusari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin zuen 1999ko urriaren 18an, bularreko minbiziari aurre hartzeko programako autobusari buruz, San Adrianen matxuraturik baitzegoen. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1) Egia al da bularreko minbiziari aurre hartzeko programako autobusak hiru egun daramatzala matxuraturik San Adrianen, eta herri horretako, Andosillako eta Carcarko 340ren bat emakume utzi direla miatu gabe?

Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarrera-ko Programaren Unitate Ibiltariko mamografoaren titi-konpresiorako sistema matxuratu egin zen urriaren 13an, azken orduan, eta urriaren 19raino horrela egun da.

Beraz, aztertu gabeko emakume guztien azterketa urriaren 22, 28 eta azaroaren 2, 3 eta 4 egunetara pasa zen, herri horretarako libre ziren lehenengo egun baliodontara, alegia.

2) Bestetan ere izan dira matxurak; esaterako, Lodosan. Autobusaren matxurak direla-eta miatu gabe geratzen diren emakumeen eskura zer aukera jartzen dira?

Inoiz ez da emakumerik aztertu gabe utzi, matxura edozein motakoa izan delarik ere.

Hartutako neurriak aurreko erantzunean azaldukoak dira.

3) Programaren plangintzan, kontuan izaten al da nekazaritza-munduko emakumeen errealitate

sozioekonomikoa? Izan ere, Erriberan, esaterako, miaketak kontserberen kanpainaren erdian ari dira egiten.

Programa goiz eta arratsaldean egiten da, eta aldatzeko beharra frogatuz gero, eguna eta ordua aldatzen dira. Ordu-tegiaren malgutasun horrek herri bakoitzeko eskari zehatzetara moldatzea ahalbidetzen du.

4) Sasoikako langileak diren emakumeei zer ordain ematen zaie, autobusaren matxurak direla-eta miatuak izateko Iruñera jo behar dutenean, bigarren aldiz?

Bigarren azterketa egiteko Iruñera joan behar hori, frogatzea egiteko arrazoi teknikoak direla-eta gomendatzen da. Izan ere, horietariko bat egiteko tresna berezia behar da, eta ez da gomendagarria Unitate Ibiltarian horrelakorik erabiltzea.

Unitate Ibiltariaren matxuragatik ez dira landa eremuko emakumeak Iruñera deitzen. Aitzitik, herri berean aztertzen dira beste egun batean. Duela gutxi Lodosan gertatutako kasuan, ez da ordainik eman, azterketa bereziak baitziren.

5) Nafarroako herrietan dabilen autobusean, Bularreko Minbiziaren Programaren baitan egindako miaketetan pribatutasunik eta konfidentzialtasunik ez dagoelako emakumeek egindako protesteei erantzuteko, zer neurri hartu behar dira?

Unitate Ibiltarian itxaron gela berezia dago, eta behar den pribatutasun eta konfidentzialtasuna ematen ditu.

6) Bularreko Minbiziaren Programaren barruan, miatu gabeko zenbat emakume daude, guztira?

Momentu honetan, aztertzeke daude, batetik, aurreko azterketatik bi urteko epea pasa ez delako deitu beharrekoak, eta bestetik, deia eginda ere joan ez direnak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Izendapen-proposamena

1999ko ekainaren 23ko 78 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1999ko ekainaren 2ko 48 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Oposizio-lehiaketa amaiturik, epaimahaia ondoko erabakiak jakinarazten ditu:

1.- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia gainditu dutenen zerrenda, puntuazioaren arabera hurrenkera duena, onestea. Honako hau da zerrenda:

- | | |
|---|-------------|
| 1. Aranaz Jiménez, Eduardo..... | 64,73 puntu |
| 2. Alduán Chivite, Angel M ^a | 63,81 puntu |

2.- Nafarroako Parlamentuko Mahaiari sistema informatikoetako erdi mailako teknikari gisa Eduardo Aranaz Jiménez jauna izenda dezan proposatzea, dagokion oposizio-lehiaketarako deialdiko 7. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Proposaturiko izangaiak deialdiko 7.2. oinarrian eskaturiko dokumentuak aurkeztu beharko ditu bere izendapenari ekiteko.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 14an

Epaimahaiko idazkaria: Francisco Del Cerro Paúl